112. zenbakia - 2012ko urtarrila

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

EUSKAL IHAUTERIAK

]MOZORROAK BIRZIKLATZEKO AUKERA AGATE DEUNA, BASERRIZ BASERRI]

IÑAKI UZIN munduari bira ematen

1 gutunak

TXOKO
ERRETEGIA
kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelltak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

BILERA GELA DAUKAGU
943 140 143
943 140 345
Saiazgetaria
20808 Getaria
Gipuzkoa
www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(IRREPIDETIK 600 METROKA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Taller mekanikoa.
Soldadura eta kaldererla.
20808 Getaria

kutxa

Arrantzak eta Bakailaoa
ITSAS
MENDI
gatiziak
GETARIA
OKIO

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokalak
·Pintxo gaxoen aukera
Kale Nagusia, 24 GETARIA Tel.: 943 140 800

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuzko Pintxoak,
Bokatak eta Raciona.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113


ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tlno. 943 14 05 00 • fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA
NAGUSIA,17
14 07 04

"San Anton, bixigu al monton"

artzape

112. zenbakia

2012ko urtarrila

]5/Txapakalezka:

+ = -

]6-7/Getarian zer berri?

Inauterietako kartel lehiaketa Eski Irteera

]8-11/Elkarrizketa:

Iñaki Uzin

]12-13/Argazki-txokoa:

San Antonak

]14-15/Erreportajea:

Euskal Ihauteriak

]23/Akordatzen:

50eko hamarkadako Eskola nazionala

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Nagore Izagirre [maketazioa] Monika Uzkiza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Amaia Iribar, Ane Azkue, Josune Urresti, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Markos Aizpurua, Xabier Alberdi, Getaiko Gaztetxea eta Elan-Euskadi GKE [kolaboratzaileak] Xabier Insausti eta Aitor Irigoien[argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1150 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

] oharrak

Otsailean atseden hartuko dugu

Irakurle maiteok:
Beste urteetan egiten dugun moduan, aurtengoan ere otsailean atseden hartuko ditugu. Hurrengo alea martxoan izango duzue berriz ere zuen buzoietan herrian gertatzen denaren berri emanez. Mila esker irakurtzen gaituzuen guztioi Artzapeko lan taldearen partez.

Mariasun Uzin

Aurreko alean herrian odol-emateen arduraduna den Mariasun Uzin-i elkarrizketa egin genion. Bere abizenarekin nahastu ginen , Uzin beharrean, Iribar publikatu genuelako. Berari eta irakurleoi barkamena eskatu nahi dizuegu egindako akatsagatik.

] gutunak

"2007-2011 kontuak Garbi":
Herritarrak nahastea helburu zuen deialdia

Pasa den abenduaren 19an, Getariako Udaletxean, "2007-2011 kontuak Garbi" izenburupean, Bilduko Gobernu taldeak, bilera bat antolatu zuen, non bertan aurkezturiko informazio eta datu asko okerrak eta beraien erara eman ziren. Deialdi hau Udalaren izenean antolaturiko ekintza bezala saldu ziguten guztioi, eta gure aldetik herriari jakinarazi nahi diogu, Udala guztiok garela eta ekintza hau Bilduren 5 zinegotzik antolatua izan zela, orain oposizioan gauden eta beraiek baino herritar gehiago ordezkatzen ditugun beste 6 zinegotziak alde batera utzirik. Zertarako jendaurrera beraien datuak isilpean eraman beharra? Zertarako daude batzordeak?

Dagoenekoz 6 hilabete pasa dira, alkate eta udal gobernu berria dauzkagula. Zer berri dago herrian? Zuek emandako informazioaren arabera ezer ere ez, zaharrak berri. Zer asmo dituzue aurrera begira? (galdera hau erantzunik gabe geratu zen zuen deialdian).

Krisia, aurten hasi al da? 2008-tik gaur arte jasan eta egindako guztia, ez al geunden krisi antzekoan?EAJ-PNV-ren ustetan zuen estrategia guzti hau gestiorako duzuen gaitasun eza tapatzeko era bat dela iruditzen zaigu.

Adiskideok, 48 hilabetetarako hautatuak izan zarete eta jada 6 joan zaizkizue atzera begira herriaren onerako den ezer lortu gabe.

Beraz, utzi guk eginiko lan guztia kritikatzeari eta martxan jarri, hori bait da herriak nahi duena.

Getariako EAJ-PNV Udal Taldea

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo *artzape@topagunea.com* helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

Txapakalezka

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

+ Getariako musika bandak 100 urte

Azken urtebetean Getariako musika bandak, bere ehungarren urteurrena medio, egindako lana apartekoa izan dela iruditzen zaigu. Izan ere, ekitaldi sorta zabala antolatu du herrian hilabetez hilabete: banda desberdinen arteko topaketak, kontzertuak, antzerkiak, film emanaldiak, urteurreneko liburuaren argitalpena, zuzeneko diskoaren grabaketa… 100 urte luze, Getaria musikaz alaitzen, kaleak doinuez bustitzen, eta herriko musikari zein musikazaleei aukerak ematen. 100 urte intentsu, borondatezko, ezkutuko lan ugari egiten. 100 urte eder, ametsak betetzen… eta ospakizunak uneak merezi zuen mailakoak izan dira.

Hori guztia antolatzeak suposatzen duen lan gehigarriarekin…Horrenbestez, Txapakalezkako atal honetatik gure eskerrak bandako kide izandakoei, egun direnei zein etorkizunean izango direnei! Zorionik bero-beroenak, eta ea datozen 100 urteak ere lhain oparoak izaten dituzuen!

= San Silbestreko lasterketa herrikoia

2012ko abenduaren 31an, beste urte batez, San Silbestre lasterketa herrikoia ospatu zen herrian, eta aurten ere giro ezin ederragoa bizi izan zen! Partaidetza handia izan zen, adin guztietako neska-mutilak eta gizon-emakumeak animatu baitziren urtea era osasuntsuan amaitzera. Korrikalariez gain, hauei animuak ematera ere herritar ugari bildu zen, eta asko eskertzen dute korrikalariek jasotzen den animu kopurua!

Azken edizio honetan, aldaketatxo batzuk burutu ziren ibilbidean. Hala, kategoria guztietan distantziak laburtu ziren, eta lasterketa herriko alde zaharreko kaleetan kontzentratu zen. Hala ere, lasterketaren ezaugarri nagusiak bere horretan jarraitu zuten: aldapa ugari, gora zein behera; lasterketa ondorengo salda eta txorizo goxoa; broma eta giro aparta…

Urtea ongi amaitzeko, eta herrian kirola eginez gozatzeko abagune zoragarria!

– Artzape aldizkaria kinka larrian

Denborak daramatzagu egoeraren berri ematen, baina oraingoz arazoak bere horretan dihardu: Artzape aldizkariaren egoera ekonomikoa oso larria da, eta bere biziraupena ez dago inolaz ere bermatua.

Guzti-guztion laguntzarik gabe, aldizkariak ezingo du aurrera jarraitu.

Argi adierazi behar da herritarrak harpidedun egitea dela arazoaren konponbidea.

Urteko kuota 20 €-koa da. Hau da, 1,67 €/hileko; 0,42 €/asteko; 0,06 €/eguneko. Hamar urtetik gora dituen halako egitasmo interesgarria, herrian txertatua dagoena, ezin dugu hiltzen utzi… Hala, aldizkariko harpidedun egiteko deia luzatzen dugu, beste behin, beranduegi izan baino lehen…

Artzapetik begira

Xabier Insausti

Paris

Non. Rien de rien.Je ne regrette rien.

Orain dela gutxi, Edith Piafi buruzko pelikula bat ikusi nuen. Edith Piafen ahotsak harrapatu ninduen. Ezer egin gabe, gutxitan gertatzen zitzaidan bezala. Nire, gure iraganaren zati bat etorri zitzaidan burura.

Edith Piaf Paris da. Marlene Dietrich-ek hori esaten dio pelikularen une batean, bere ahotsaren bidez Parisa etorri zitzaiola burura eta malkoei ezin zitzaiela eutsi. "Nik ere Parisen falta sentitzen dut", erantzun zion Piafek, une hartan jadanik New Yorken bizi zela. Guretzat ere Paris zen dena: iraultzaren haizea, askatasunaren arnasa. Paris zen Jean Genet, Sartre, Le dernier Tango, 68ko maiatza... askatasunaren sinboloa, gure ametsa. Parisa, Francoren garaia izanik, Espainian ez geneukanaren bila joan ginen: askatasun politikoa, sexuala, erlijiosoa, intelektuala. Garai hartan, egunero entzun genuen gaueko hamaiketan Radio Paris, eta hori Espainiako kartzelako leiho bat ireki bezala arnasa hartzeko. Ziur geunden, aldaketa izugarriaren aurrean geundela. Nahastu egin ginen: EAJko pseudodemokrazia deskafeinatua etorri zen. Baina gure ametsa inork ez digu kenduko.

Zer zoriontsu bizi ginen Parisen. Nik bi uda pasatu nituen han. Hogei bat urte nituen. ETAren urte gogorrenak ziren, Francoren azken urteak. Burgosko juizioa. Francoren erregimena amesgaitzaren menpe egotea bezala zen. Ihesa besterik ez geneukan buruan. Edith Piaf berriz entzuterakoan, nire oroimena Parisera bueltatu da, bizitza gaztetu. Beti geratuko zaigu Paris eta hara bueltatuko gara. Je ne regrette rien. Ez naiz ezertaz damu. Bakarrik bekatu gutxiegi egin izanagatik. Bizi ari garen gari motelaren izenaren damua eskatzen duten aurka, Piaf-en gogoa aldarrikatu behar dut. Krisi ekonomikoaren atzean beste krisi askoz larriagoa ezkutatzen da, nola bizi jakin ezinaren krisia, bere Parisa galdu duen krisia.

Paris existitu ez balitz, asmatu beharko genukeen. Paris... je t'aime.

Ligako tontorrean daude Ketakoak

Getariako Keta futbol taldeak bere bolada onari eusten dio. Ligako azken hiru norgehiagokak irabazi ditu eta sailkapeneko bigarren postuan kokatu dira liderrarengandik 3 puntura.
Igandea 22an garaipen garrantzitsua lortu zuten Mendibeltzen Txema Rauleagaren mutilek. Aurrean Eibartarrak taldea zuten eta 4-0ko emaitzarekin hiru puntuak bereganatu zituzten getariarrek.
Aurreko partidak irabazi ostean konfidantzaz beteta irten ziren zelaira Ketakoak eta ez zuten barkatu bisitarien atearen aurrean. 30. minutuan, Ketak korner bat atera zuen bigarren zutoinera eta Alex Aizpuruak baloia sareetara bidali zuen jaurtiketa gogor bati esker. Bigarrena ere handik gutxira iritsi zen eta protagonista Alex Aizpurua izan zen beste behin. Aitor Arregiren jaurtiketa gogor bati esker, baloia Alexen hanketara iritsi zen eta honek sareetara bidali zuen. Ketak abantaila hartu zuen eta hori gutxi ez balitz, Eibartarrak jokalari bat gutxiagorekin geratu ziren.
Bigarren zatian iritsi ziren beste bi golak. Eibartarrak saiatu zen Ketakoei beldurra sartzen baina Manex Larrañagaren jokaldi baten ondoren Aritz Arregik baloia sareetara bidali zuen. 3-0 markagailuan eta epaileak atezaina kanporatu zuen goleko jokaldian Manexi egindako falta batengatik. Partida erabakita bazegoen ere, Aitor Arregik laugarrena egiteko beta izan zuen penalti puntutik.

Clown antzerki tailerra

Urtarriletik eta ekainera bitartean Clown antzerki tailerrak eskainiko zaizkie herritarrei, Gure Txeru elkartean. Ramon Albistur animatzailearen eskutik, hasi berrientzat bereziki zuzendurik egongo dira. Hala ere, esperientzia duen orok parte hartu ahal izango du. Clown ariketen lehen urratsetan sormena taldean piztu eta adierazpen dramatikoa landuko dira, besteak beste. 18 urtetik gorakoa izatea ezinbestekoa da, eta taldeak, gehienez ere, 14 pertsonakoa izan beharko du. Sei larunbatetan izango dira formazio-zikloak, eta 24 ordukoak izango dira. Lehena hilaren 28an izan zen, eta hurrengoak hileko larunbat batean izango dira: otsailak 25, martxoak 24, apirilak 21, maiatzak 26 eta ekainak 30. Goizeko 10:00etatik 14:00etara izango dira. 120 euro kostako da ziklo osoa, eta ordainketa hilero egingo da (20 euro hileko). Izen-ematea 948 63 11 62 telefono-zenbakian edota www.uhartean.com-en.

Bandaren kontzertua

Getariako Musika Bandak kontzertua eskaini zuen urtarrilaren 22an, Salbatore Deunaren elizan. 100. urteurrenaren baitan, Soutulloren "Puentereas", Alberdiren "Cantos Vascos", Jacob de Haanen "Free World Fantasy" eta George Gershwinen "Porgy and Bess" izan zituzten errepertorioan.

Lana bilatzeko ikastaroak

Urola Kostako Udal Elkarteak doako ikastaroak eskaintzen ditu lana bilatzen laguntzeko. "Lana bilatzeko teknikak teknologia berriak erabiliz", "Enplegua 2.0" (lana bilatzeko bide berriak ezagutzeko), "Lan elkarrizketak", (nola egin ikasi eta prestatzeko) eta "Pertsona eta pertsona arteko gaitasun eta trebetasunak" (lanik gabe egoteak sortzen dituen ezintasun eta egoera pertsonalei aurre egiten ikasteko) izango dira ikastaroak. Ikastaroak Enplegu Zentroan bertan izango dira (Urdaneta bidea 6, Zarautz) eta izena emateko 943 89 08 08an edota 7.30-15.00etara egoitzara bertaraturik egin daiteke.

Eski-irteera Luz Ardidenera

Eski-irteera dago antolaturik datorren otsailaren 11 eta 12an nahi duen ororentzat. Luz Ardidenera dago aurreikusita irteera eta izen ematea otsailaren 1etik 7ra bitartean dago irekita.

Inauterietako kartel-lehiaketa

Irekita dago inauterietako kartel-lehiaketan parte hartzeko epea, eta otsailaren 8ra arte egongo da zabalik. Adin guztietako herritarrek parte har dezakete, eta kartelak A3 neurrikoa izan behar du. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu beharko du, eta egilearen izena eta datuak gutun-azal batean sartuko dira. Kartelak ez dira izenpetuko. Lanak udal-bulegoetan edo liburutegian aurkeztuko dira. Saritutako kartelek Getariako Inauteriak 2012ko jai-egitaraua iragarriko dute. Gaia "Getariako inauteriak 2012" da, eta lema bat izango du. 2-5 urte bitartekoentzat saria pintatzeko materiala izango da; gauza bera emango zaie 1. mailatik 6 mailara bitartekoei. DBH ikasten ari direnentzat, 60 euroko saria, 16 urtetik gorakoentzat 150 euro.

Mozorroak birziklatzeko aukera paregabea

Otsailaren 4an eta 5ean, mozorro zaharrak kutxatik atera eta birziklatzeko aukera izango dute Balentziaga Museoak eskainiko duen tailerrean parte hartu nahi duten guztiek. Parte-hartzaileek materialak izango dituzte eskura, bai eta mozorroak zaharberritzen lagunduko dieten laguntzaileak ere. Telak, pinturak, zintak, josteko makinak… erabili ahalko dituzte. Goizeko 10:30etik 13:30era izango da ikastaroa. Egun bakarrekoa 20 euro kostako da, eta bi egunekoa 35 euro. Gehienezko kopurua: 15 pertsona.

Auzoz-auzo Santa eskean

Getariako Bertso Eskolak Agate Deunaren egunean kantuak baserriz baserri abesteko irteera antolatu du. Animatzen den orok datorren otsailaren 4an izango du aukera, goizeko 8.30ean plazan baitago jarrita hitzordua. Plazatik irten eta auzoz-auzo ibiliko dira Santa-eskean: Uxotegi baserritik barrena San Prudentziora igoko dira; handik Bizkarra baserria igaro eta Askizura joateko, bertan hamaiketakoa egingo dutelarik. Ondoren, Abeta baserritik barrera Miara iritsiko dira eta bertan bazkalduko dute. Hurrengo geltokia Zingira baserria izango da. Eta azkenik, Alkatearen ibilbidetik herrira jaitsiko dira. Ibilaldi honen ostean, herriko plazan txokolatada egingo dute ondoren kantu-poteoari tartea emateko.

Interesa duen orok izena eman dezake Harralde eta Taxko tabernetan otsailaren 1a baino lehen 5 euroren truke (jatordua ordaintzeko).

Euskadiko Ingurumen Plana

2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programak ezarritako helburu estrategikoen eta bere egindako konpromisoen jarraipena egin da. Epe horretan ingurumen-adierazle gehienek (% 59k) izandako bilakaera positiboa izan dute, eta negatiboa % 2k.

Airearen kalitatea

2010ean, airearen kalitatearen adierazlea ona edo onargarria izan zen egunen % 99n. 2007an, egunen % 94n izan ziren. Alde negatiboa da, oxido nitroso motakoen isuriak murriztu badira ere, ez dela bete 2010erako zehaztutako helburua.

Uraren kalitatea

Joera nagusia positiboa izan da. Lurpeko urak behar bezala babestu eta hobetu dira, eta bainuko uren % 95 kalitate onekoa edo onargarrikoa izatea lortu da. Hala ere, emaitzak ez dira hain positiboak izan lurrazaleko urak eta ur artifizialak babestu, hobetu eta birsortzeari dagokionez.

Lurzoruaren kalitatea

Aurrera egin da lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu, kutsatutako lurzoruak erabilera berrietarako berreskuratu, eta zabortegi inaktiboak kontrolatu eta horien jarraipena egiteari dagokionez. Hala ere, ez da bete erabilera berririk gabeko lurzoruak berreskuratzeko konpromisoa, ez baita bete 35 hektarea lurzoru berreskuratzeko helburua.

Berotegi-efektuko gas-isuriak

EAEko isuriak 1990ekoak baino % 14 txikiagoak izan dira. Azpimarratu behar da 2009ko isurien beherakada nabarmen baldintzatu duela, aurreko urtearen aldean, jarduera ekonomikoaren maila jaitsi izanak.

Beste adierazle batzuk

Aztertutako aldian joera positiboa izan dute, halaber, kontsumo- eta energia-ekoizpen jasangarriarekin zerikusia duten adierazleek.

Klima-aldaketara egokitzeko gaietan hainbat aurrerapauso eman dira, ez, ordea, adostutakoa erabat betetzeko adina. Bestalde, mugikortasun jasangarriari dagokionez, moduzko banaketaren adierazleak ez dira nahi bezalakoak izan, ez bidaiarien kasuan, ez salerosgaienean.

Iñaki Uzin

25 urteko gazte honek sei urte pasatu zituen unibertsitatean Ingeniaritza ikasten. Arraunean ere ibili zen, eta beti loturik zegoen berari gehien gustatzen zaiona egiteko: bidaiatzeko. Ikasketak bukatzean, ez zuen nahi errutina batean murgildu, eta mundua ikusi, ezagutu eta ingelesa ikastea erabaki zuen. Abentura lagun batekin hasi zuen, hilabeteko bidaiatxo batekin. Laguna itzuli egin zen, eta Iñaki 14 hilabetez ibili da kontinentez kontinente, motxila bizkarrean duela; besteak beste, leku hauetan ibili da: Hong Kong, Laos, Vietnam, Zeelanda Berria, Australia eta Argentina.

Nola hasi zen bidaiatzeko abentura? Lagun batekin hasi zenuen bidaia, ezta?

Bai. Asiara joan ginen. Berarekin hitz eginda nuen hilabeterako joango ginela eta gero nik nire kasa jarraituko nuela. Kuala Lumpur, Vietnam, Camboya eta Balin izan ginen. Han, Getariako zortzi lagun elkartu ginen: relax, parranda, ederki. Oso ongi pasatu genuen. Handik Zeelanda Berrira joan nintzen ni, bakarrik. Ez nekien ingelesez eta aireportuan gelditu egin ninduten, ezer nuen begiratzeko. Azkenean, gaztelaniaz egingo zuen norbait eskatu nuen. Horrela hasi zen nire bidaia Zeelanda Berrian. Han, lana egin nuen, bertan leku hartzearen truke. Hau da, hostal batean oheak egin, garbitu edo arrantxoetan belarra moztu, baratzean lagundu… eta horrela, lo eta jan doan egiten nituen, eta, bide batez, ingelesa ikasten nuen.

> **“Daukaguna baino askoz gutxiagorekin bizi gaitezke”**

Nola topatu zenuen lanaren truke jan eta lo doan egiteko aukera? Non jakin zenuen?

Internetez bilatu nuen, eta blogetan ikusi nuen jendeak nola egiten duen. Bertan ikusten da jendeari nola joan zaion. Bidaia-gidak, gehienetan, denbora gutxirako bidaiatzeko izaten dira eta dirua gastatzeko, baina Internetez informazio interesgarri asko topatzen da.

Zenbaterako zeneukan pentsaturik bidaiatzea hasiera batean? Bazenuen eperik?

Hasiera batean, 6 hilabeterako joatea pentsatu nuen, baina bizio bat da bidaiatzea eta 14 hilabete eman nituen. Zeelanda Berritik Australiara joan nintzen. Hiru hilabete pasatu nituen Zeelanda Berrian, bisak eman zidan denbora, eta handik Australiara joan behar izan nuen, turista gisa, gehienez, hiru hilabete egon zaitezke eta.

Nola moldatu zinen ingelesarekin?

Hasiera gogorra izan zen. Nik alemana

badakit eta eskerrak alemanak zeuden; horrela moldatu nintzen. Ingelesa ikasteko DVDak ikusi nituen, Interneten itzulpenak begiratzen nituen, eta ikasten hasi nintzen.

Jende ugari eta ezberdina ezagutuko zenuen?
Bai. Hostaletan lanean ibili nintzen; jende ugari ezagutzen da horrela, jende ezberdina, hainbat kultura… Ireki egin nintzen; ez duzu uste zure burua horrelakoa izango denik eta irekiko denik egoera horretan zauden arte.

Zeelanda Berritik Australiara joan zinen. Han ere lan egin zenuen?
Bai, Australian obran egin nuen lan hilabetez. Alokairuko furgoneta bat eramaten ere bai. Turistak eramaten zituzten iparraldetik hegoaldera, eta bide hori egiteko, berriro itzuli behar zaio furgoneta konpainiari; nik eramaten nien kotxea. Bertan lo egiten nuen, sukaldea neukan gainera. Oso ongi, nahi nuena egiten nuen, nahi nuen lekuan geratu…

Beste zer lanetan aritu zara?

Zazpi getariarrek Balin astebete eman zuten.

Kanpin batean ere bai.

Eperik gabe joaten zinen lekuetara?
Lekua gustatuz gero, geratu egiten nintzen; bestela, joan. Lasai nengoen horregatik.

Esperientzia ahaztezin eta on bat aukeratzekotan, zein gogoratzen duzu bereziki?
Berriro lagun batzuk topatu nituen zortzi hilabete bidaiatzen pasatu eta gero. Australian ezagutu nituen kataluniar batzuk, eta berriz ere Ekuadorren topo egin nuen haiekin. Elkarrekin hilabete pasatu genuen Kolonbian, klima tropikalarekin, hondartzan; nire urtebetetzea han ospatu genuen.



“Jende eta kultura ezberdinak ezagutzeak ireki egiten zaitu”

Kontinente guztiak ezagutu al dituzu?
Afrika izan ezik, beste guztiak pasa ditut; noski, ez kontinente guztietako herrialde guztiak. Begiratu nituen, Jamaikatik Hego Afrikara joateko hegaldiak eta 380 dolarretan aurkitu nituen; oso merkea da, baina azkenean ez nintzen Afrikara joan.

Non bilatzen dituzu aukera paregabe horiek? Zein da zure sekretua?
Ingeniaritzako baino gehiago bidaiatzeko aukerak bilatzen dakit. Web orri bat egitea pentsatzen ari naiz, jendeari bidaia merkeak bilatzen laguntzeko, nola mugitu jakiteko…; pixkanaka egitea daukat buruan. Azken batean, bidaiatzeko hainbat webgunetan bilatu behar da informazioa eta nik bildu nahi ditut. Ospitaleak, enbaxadak, txanpona zein den, non hartu ostatu, hegaldiak non bilatu…; hobby bezala gustatzen zait.

Baduzu lana hor...
Bai, pixkanaka joan beharko dut informazio guzti hori biltzeko, baina gustuko dudan lana da.

Munduan zehar ikusi dituzun bazter horietatik, zer ohitura bitxi gogoratzen duzu?
Hego Amerikan, Bolivia aldean, herri txikietan ibili



Kolonbiako hondartza eder batean.

nintzen. Astebete pasatzen nuen haiekin, merkatura joan, beraiekin hitz egin… beste pentsaera bat dute, ez dira presaka bizi. Gauza bitxi bat: adibidez, autobusetik jaitsi eta txiza egiten zutela iruditu zitzaidan. Naturalki egiten zuten, ezkutatu gabe.

Mendebaldeko kultura kontsumista honetan baino gauza gutxiagorekin bizi dira, ezta?
Interneta, eskuko telefonoa, telebista… behar ditugu hemen; munduko beste leku batzuetan ez. Etortzean, eskuko telefonoa piztu nuen, eta deitzen zidatenean ez nekien nirea zenik ere. Telebista ere ez dut ikusi. Gauza batzuk, niki berria, arropa berria... erosten ditugu hemen. Azkenean lotarako eta jateko baduzu, nahikoa da. Askoz gutxiagorekin bizi gaitezke.

Zer galdera dituzte beste kulturek gure munduaren inguruan?
Bolivian, esaterako, errepide asfaltatuak genituen galdetzen zidaten. Bitxiak dira galdera batzuk. Guretzako oinarrizkoa da errepide asfaltatua edukitzea. Han, errepidean denbora asko pasatzen genuen; hemen oihuka hasiko ginateke. Ahorita esaten dute eta lasai bizi dira.

Hego Amerikan ikusi duzu lasaitasuna, polikiago bizi direla, alegia?
Hego Amerikan asko ikusi dut lasaitasun hori. Asian, estres gehiago. Laos oraindik lasaia da, baina Vietnamen, esaterako, turista dolarra da. Australia, Zeelanda Berria eta AEBetan ere azkar bizi dira.

Kanadan ere izan zinen.
Bai, Kanadan hilabete pasatu nuen eraikuntzan lanean. Anaia etorri eta AEBetara joan ginen. Anaiak 16 urte ditu; ingelesa ikasi eta pixka bat bizkortzeko etorri zen. Ekialdetik mendebalderako kosta, Las vegas, Arroila Handia, Toronto, Montreal eta New York ikusi genituen. Gero, arreba Guatemalara etorri zen. Haren oporrak ziren eta bi astez ibili ginen. Salvador, Ekuador, Kolonbia, Peru, Bolivia, Argentina, Rio de Janeiro, Sao Paolo, Bartzelona eta etxera....

Zer moduz itzulera?
Gogorra izan da. Hasieran, polita, etxekoak ikusi, lagunak… baina arraro nengoen

Rio de Janeiroko “Cristo de Corcovado” ere ezagutu zuen Iñakik.

“Beti eduki dut mundua ikusteko gogoa”

etxean. Etxean afaltzeko zer nahi nuen galdetzen zidaten, armairuan arropa asko…; ohitu naiz pixkanaka, lagunekin, lanean, parrandak egin… sartu naiz errutinan.

Bidaiatzeko grina beti izan duzu?

Bai, beti eduki dut mundua ikusteko gogoa. Beti izan dut zerbait barruan banuen. 300 bat eurorekin Hego Koreara joateko hegaldi bat bilatu nuen. Denbora batean ez naiz joango, baina... Brasil dut buruan; Nepal, Txina eta India ere bai… Brasilen denbora gutxi pasatu nuen.

Zure gurasoei nola azaldu zenien motxila hartu eta mundua ezagutzera zindoazela?

Hasieran, nire asmoa ez zen hain bidaia luzea egitea. Zeelanda Berrian ingeles pixka bat ikasi behar nuela esan nien. Hasieratik ez nien esan urtebete ingururako nindoala. Uda arte, uda pasata, Gabonetako hor naiz…; itzulera atzeratuz joan nintzen. Amak “ez dek etorriko” esaten zuen.

Nola gustatzen zaizu bidaiatzea: bakarrik ala konpainian?

Biak. Talde txikian eta bakarrik gustatzen zait. Norbaitekin bidaiatzeko zure modukoa izan behar du. Autobus bat hartu, nora gehiegi pentsatu gabe, eta lekua gustatuz gero, presarik gabe geratu… Ezagutu nituen katalanak horrelakoak ziren, eta horregatik moldatu ginen hain ongi.

Argentinako “Faro del Fin del Mundo” ezagunean.

“Nire urtebetetzea Kolonbian ospatu nuen katalandar batzuekin”

Singapore hirian.

“Hego Amerikan “Ahorita” esaten dute eta lasai bizi dira”

Argazkia: Mikel Izagirre

Argazkia: Ana Vega

Goiko eta beheko argazkiak: Iker Alberdi

San Anton, uzta berria dastatzen

Txakolin-uzta berria dastatzera jende ugari hurbildu zen frontoiko karpara, San Anton egunean. Trikitilariek giroturik, herriko zukurik preziatuena edateko aukera paregabea izan zen. San Anton Eguna "Gazte Alaiak" txistulari-taldearekin hasi zen. Harritarten azoka izan zen, eta dastaketaren ondoren, Sebastian Lizasoren eta Andoni Egañaren bertsoak entzun ahal izan genituen udaletxeko balkoitik. Aurtengoan, "Etiopia Utopia" fundazioa izan da omendua. Herri-kirolek eman zioten segida festari, eta trikitilarien doinuekin amaitu zen. San Anton festek, hala ere, askorako eman dute. Izan ere, hilaren 13an, frontoiko karpan "(G)etaria. G puntua" lelopean, bertso-jaialdi bikaina eskaini zuten Aitor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Iñaki Apalategi, Agin Rezola eta Jexux Mari Irazu bertsolariek. Horrez gain, ohikoa den San Anton zaldi-lasterketa egin zuten Malkorbe hondartzan, hilaren 15ean. Egun berean, arratsaldez, giza probaren txanda izan zen: Orioko giza probako taldea Getariako arraunlarien aurka. Hilaren 16an, haurren txanda izan zen; arratsaldean, txokolatea banatu zuten, eta erraldoi eta buruhandien kalejira egin zen gero, Musika Eskolako trikitilariekin batera.

Argazkia: Iban Martinez

Argazkia: Iker Alberdi

Goiko eta beheko argazkiak: Iker Alberdi

Goiko eta beheko argazkiak: Mikel Izagirre

Euskal ihauteriak, ondare aberatsa

Inauteriak, ihoteak, aratusteak, maskaradak... izendatzeko modu ugari daude herrialdearen arabera, eta pertsonaien zerrenda era luzea eta aberatsa da: zaku zaharrak, mamuxarroak, mairuak, Miel Otxin, joaldunak edo zanpantzarrak, txantxoak, markitos, lamiak eta atorrak... Gure kultura aberats horren zatitxo bat ekarriko digute Getariako dantza-taldekoak inauterietako larunbat arratsaldean, herriko kaleak hartuko baitituzte mamuxarro, zaku zahar eta mairuek.

Irudian, Lesakako Zaku Zaharrak.

Galtzazpi zuri luzeak eta kamiseta luzea soinean, gerriko gorri edo beltza bueltan, zapi koloredunak buruan, txano zintadunak gainean eta bi metroko baino gehiagoko makilak eskuan. Inaute igandean eta asteartean Unanuko kaleetan harrapatzen dutena hankatan jotzen dute, salto egin, lasterka hasi edo belauniko jartzen den arte.
Aurtengoan mamuxarro getariarrak izango ditugu inauterietako protagonisten artean. Beraz, kontuz ibili beharko hilaren 18an kalean dabilenak.

Sakanan kokaturik dagoen Unanu herrian oso erroturik dagoen pertsonaia da. Mamuxarroen bereizgarrietako bat karatula da. Aurpegia estaltzeko eta anonimotasuna gordetzeko erabiltzen dute. Inaute igandea baino astebete lehenago prestatzen dute inauteria Unanuko gazteek. Larunbatean edo igandean, basora joan eta hurritz-makilak biltzen dituzte. Astebete lehenago egiten dute, lehortu ez daitezen; izan ere, horrela egin ezean (lehor), min gehiago emango lukete. Euren asmoa ez omen da min egitea, jendeari korrika eginaraztea baizik. Korrika egin nahi ez duenak, ohitura jarraituz, belaunikatu eta mamuxarroari belaunean musu emanez geratuko da zigorretik salbu. Unanuarrak, ordea, etxean gordetzen dira mamuxarroak ateratzen direnerako. Leihoak eta ateak itxita, beiraren beste aldeak erakusten du barruan daudenen urduritasuna, batez ere, mamuxarroak leihotik zintzilik edo etxeko atean bultzaka hasten direnean.Kontuz ibili behar beraz inauterietako larunbatean herriko kaleetan mamuxarroen makil luze horiekin.

Herria bisitatzera etorriko den beste pertsonaia Zaku Zaharra izango da.
Lesakako herriak gordetzen dituen ohitura zaharretan, pertsonaia ezagun eta maitatuenetakoa da zaku zaharra. Inauterietako igandean, herriko gazteak belar lehorrez betetako zakuekin janzten dira, aurpegia zapiekin tapatuta; lehortutako zerri maskuriekin gainerako herritarrak, bisitariak, eta mairuak izutzen dituzte, kolpeka. Dantza-taldearen barnean (helduek hartuko dute parte euskal inauterietan), zaku zaharraren pertsonaia aukeratu dute gehienek, Maite Bereziartua dantzako eta musika-eskolako irakasleak esandakoaren arabera. Izan ere, irakasle azpeitiar gazte honi bururatu zitzaion euskal inauterien kultura eta ondare aberatsa ezagutarazteko Getariara erakusgarri txiki bat ekartzea. Esan eta egin. 31 urteko azpeitiarrak Udaleko ordezkariekin hitz egin zuen euskal inauteriak ezagutarazteko asmoz. Beraz, aurten dantza-taldearekin hasiko da, eta gaia nola ateratzen den ikusi ostean, euskal inauteriak herrira zabaltzea aztertzen ari dira.

Kalean jantziko dira

Lesakako aspaldiko pertsonaia dira zaku zaharrak, eta Nafarroan egiten duten moduan, Getarian ere kalean jantziko dira. Zakua eraman behar dute soinean

Unanuko pertsonaia da mamuxarroa.

Ustaritzekoak dira Kotilungorriak.

Izara aurpegian eta belarrez beterik joaten dira zaku zaharrak

eta hanketan, eta dena belarrez bete, itxura gizena eta baldarra lortu arte. Horregatik, Harritarten elkartuko dira hilaren 18ko arratsaldean, bertan belarra bota eta janzteko. Maite Bereziartuak aurreratu duenez, "lastozko txapela, izara aurpegian eta belarrez beterik" joango dira. Harritarten bertan belarra bota, zakuak belarrez bete eta josi egingo dituzte.

Arratsaldean egingo duten kalejiran, (arratsaldeko 18:00ak inguruan), aurrean doanak eta azkenak makilak eramango dituzte eskuan, eta erdikoek, berriz, maskuria. Bereziartuak adierazitakoaren arabera, "aurten, nahiz eta pertsonaia ugari dauden, gehien gustatzen zaizkigunak aukeratu ditugu, eta gehienoi, zaku zaharra asko gustatzen zaigu".
Zaku zahar eta mamuxarroekin batera mairuak ere joango dira kalejiran. "Mamuxarroek, batez ere, eta mairuek jendea zirikatuko dute, baita zaku-zaharrak ere; horiek izango dira gizagaixoak"

Maitek azaldu duenez. Mairuen mozorroan kolore biziak dira nagusi, eta zaku zaharrekin batera irten ohi dira Lesakan, zirikatzen, jendea korrika jartzen. Kolore ugaritako zintak izaten dituzte txapeletik zintzilik eta soinean; goitik behera, kolore anitz, tiradun zintek osaturik batik bat.

Maite Bereziartuak gaineratutakoaren arabera, "erraza da dantza-taldearekin hainbat ideia aurrera ateratzea, inplikazio handia baitago. Inauteriena proposatu nienean denek eman zuten baiezkoa berehala, interes handia jarri zuten. Udalak ere ongi hartu zuen ideia".

Pertsonaia ugari
Ugariak dira gurean ditugun pertsonaiak. Gehienak nekazaritza-munduari loturikoak dira, batik bat Nafarroan. Izan ere, herrialde horretan, herri askok du bere pertsonaia, besteak beste: Hartza Arizkunen; Miel Otxin, Ziripot Zaldiko eta txatxoak Lantzen; Joaldunak Ituren eta Zubietan. Ipar Euskal Herriko maskaradetan ere, badira hainbat pertsonaia: Uztaritzen, esaterako, kotilungorriak. Bizkaian berriz, Mundakan hain zuzen, Atorrak topatuko ditugu; Gipuzkoan, Ataunen, txantxoak, eta Zalduondon, Araban, Markitos. Hala ere, ez da hemen bukatzen. Aurtengoan, Nafarroako mamuxarro, zaku zahar eta mairuen bisita izango dugu, eta datorren urterako nork daki, agian Euskal Herri osoko inauteriek, ihoteek edota aratusteek bat egingo dute gurean.

Pertsonaia gehienak nekazal mundu ari loturikoak dira

Ituren eta Zubieta bitartean ibiltzen dira joaldunak.

Markitos da Zalduondoko pertsonaia nagusia.

Miel Otxin Lantzeko inauterietan azaltzen da.

KOREOGRAFIAK IKASTEN

Dantzaz konpainiaren eskutik, abenduak 12, 15, 19 eta 22an, 9:30etik 10:30era 3. mailakoek eta 11:00etatik 12:00etara 4.ekoek, tailer koreografikoa egin genuen; irakaslea Josu Mujika izan zen.

Lehenengo egunean, hainbat ariketa eta jolas egin genituen aretoan. Adibidez, estatuaren jolasean aritu ginen: Josuk musika jartzen zuenean dantzan hasten ginen eta gelditzen zuenean guk estatua bat bezala geratu behar genuen. Gero, berdina egiten jarraitu genuen, baina eszenatokiko lekua murrizten joan zitzaigun. Azkenik, ia ezin genuen mugitu ere egin. Beste ariketa batean, begiak edo burua bakarrik mugi genitzakeen musikaren erritmoa jarraituz. Bigarren egunean, beste jolas batzuk egin genituen eta gero koreografiako pauso batzuk prestatzen eta ikasten hasi ginen. Hirugarren egunean, aurreko egunean ikasitakoa errepasatu eta beste pauso batzuk ikasi eta entseatu genituen. Azken egunean, errepaso orokorra, eta gero, eskolako beste lagunentzako emanaldia.

Gure dantza Danimarkako kanta bat da eta Peberpelikan izena du. Istorioa honetan datza. Pelikano batek arrain asko jaten zituen eta behin piper txoriarekin egin zuen topo; piper txoriak hau esan zion:

Zergatik ez duzu arraina piperrarekin jaten?

Probatu zuen eta...

- Oso goxoa dago –esan zuen pelikanoak.

Ume bat izan zuten eta Peberpelikanoa izena jarri zioten.

4. mailakoek, berriz, Brasilgo hondartzako meloi-saltzailearen istorioa irudikatu zuten eta izena "Watermelon Man" da.

Bestalde, 5. eta 6. mailakoek beste tailer bana egingo dute otsailean.

Tailer hauetan oso ondo pasa genuen eta kurtso amaierako festan ikasitakoa egingo dugu. Denok gonbidatuta zaudete ikustera. Ikusiko duzue zer polita den eta zer artistak garen.

GETAIKO GAZTE ASANBLADA GAZTETXETIK

Gure tartetxo txikia betetzeko asmoarekin...

Kaixo, hilabete honetan ere hemen gaituzue gure tartetxo txikia betetzeko asmoz. Urte berria hasi aurretik, GGAk hainbat ekitaldi egin zituen urteari amaiera borobil bat emateko. Lehenik eta behin, mus-txapelketa antolatu genuen urtero bezala, abendu hasieran. Abenduaren hondarrean, berriz, poker-txapelketa. Bi txapelketa horiek giro alaiz eraman ziren aurrera.

Mus-txapelketan, oso arratsalde pozgarria izan genuen, hainbat bikote hurbildu baitziren gurera. Azkenik, emozioz betetako arratsalde baten ostean, Egoitz Mateos eta Mikel Garrastazu garaile izan ziren.

Abenduaren 29an, urtero bezala, apustu eta gezur zaleen poker-txapelketa izan genuen. Aurtengo poker-txapelketan, 14 partaide izan ziren, denak kopa buruan zutela. Final luze baten ondoren, honelaxe geratu zen txapelketa 1. Aritz Etxeberria 2. Aitor Andonegi 3. Alex Gontan eta 4. Gorka Bordagarai.

Azkenik, 2012a urtero bezala hasi genuen, denok elkarrekin Gaztetxean. Denok elkarri urteberriak eman, eta musikaren erritmoan dantzatuz. Gazte Asanbladaren 2012rako eskaria Gaztetxeak bizi gehiago izatea da, ekintza gehiago antolatuz eta jende gehiago mugituz; beraz, Gaztetxera etortzera animatzen zaituztegu. Denok dakigunez, azken denboraldi honetan, ekitaldi eta ekintzak murriztu egin dira Gaztetxean; jende gehiago azaltzea nahiko genuke, denon artean Gaztetxea aurrera ateratzeko eta eguneroko bizia emateko. Behin hori lortuta, herriarentzat eta guretzat gauza gehiago antolatuko direlakoan gaude; beraz, azaldu, ez dugu hozkarik egiten, oraingoz!!!

Hurrena arte!!

ARPA-TARRAK, GETARIAR ARRANTZA-ENPRESARI HANDIAK

XVI. eta XVII. mendeetako itsas-enpresari getariar handien artean Arpa sendikoak aipatu behar ditugu. Campos-tarrekin batera, Getariako itsas ekonomiak bi mende horietan izandako bilakaeraren arduradun nagusienetakoak izan ziren sendi honetako kideak.

Domingo de Arpa, Francisco de Estella-ren suhia zen eta bere aitaginarrebak Juan López de Zarauz-ekin batera osatua zuen arrantza-konpainiako kide zen. Konpainia honek 1539an Malkorbe badiako udal arrantzategia alokatu zuen eta bartan XVI. mendeko 30. hamarkadan zehar Nizatik Zarautz eta Getariara iritsitako zenbait etorkinek antxoa eta sardinetarako ekarritako sare berriak, "red barredera" deituriko arrasta-sare handiak eta "almadraba" deituriko ingura-sareak, erabiltzen zituzten. Bertan arrantzatzen zituzten antxoak eta sardinak gatzatu eta kanpora saltzen zituzten. Francisco de Estella hil zenean, bere suhi Domingo de Arpak arrantza enpresa indartsu hura oinordetzan artu zuen, mementu horretan Getariako indartsuena zena. Geroago izen berdineko bere seme Domingo de Arpa izan zen aitaren negozioez jabetu zena.

Domingo de Arpa gazteak negozioaren zabaltzeari ekin zion. Getariako Malkorbe badiako udal arrantzategia alokatzeaz gain Zarauzko udalak enkantean jartzen zuen bertako hondartzako udal arrantzategia ere alokatu egin zuen. 1567 eta 1570 artean bere esku zeukan Zarauzko hondartzako arrantzategia eta, Getarian egiten zen moduan, bertan harrapatutako antxoa eta sardina gatzatu eta kanpora saltzen zuen. Bere arrantza negozioa sendotzeko helburu horrekin ezkondu zen ziurrenik 1570ean Catalina de Aguirreberrirekin. Urte horretan bertan alargundu zen Catalina de Aguirreberri bere lehenengo senarra, Marco de Campos hil zenean. Marco de Campos, bere anaia Domingorekin batera Getariako beste arrantza konpainia nagusienaren jabea zen eta hiltzean bere alarguna eta adingabeko bi haur izendatu zituen oinordeko. Urte horretan bertan, Domingo de Campos-ek bere konpainiaren irabazietatik bere hildako anaiari zegokiona eman zion Catalinari: 170 dukat, sardina salazoian zuten 92 barrika eta antxoa salazoian zuten beste 32 barrika. Domingo de Arpak, beraz, bere konpainiaren irabaziez gain, ezkontza honen bitartez Getarian zegoen beste arrantza konpainia handienaren irabazietako zati bat eskuratzea lortu zuen.

Dena den, badirudi aurrerantzean Arpatarren zoriak aldatzera egin zuela. Batetik, Catalina Aguirreberriren eta Marco de Campos-en adingabeko bi haurren aipamen gehiago ez dugu aurkitu. Ziurrenik haurtzaroan hilko ziren biak eta, ondorioz, Campos-tarren konpainiaren gaineko eskubideak galdu egingo zituzten. Bestetik, badirudi Domingo de Arpa bera ere ez zela urte askoan bizi izan, bere aipamenak ere galdu egiten baitira. Aurrerantzean topatu ditugun aipamen bakarrak Francisco de Arpa-renak dira, Catalina de Aguirreberrirekin izan zuen semearenak. Ziurrenik Domingo de Arpa uste baino lehenago hiltzeak bere konpainiaren gainbehera eragin zuen, etorkizunari begira oso estrategikoak izan ziren urte batzuetan gainera. Hain zuzen urte horietan burutu zuten Canpos-tarrek beren enpresaren birmoldaketa eta ondorioz aurrerantzean Getariako arrantza konpainia garrantzitsuena izatera iritsi zen. Esan bezala, salazoigintza baztertu gabe, 1583 aldera eskabetxegintzan hasi zen Domingo de Campos. Lehendabizi Malkorbeko badian antxoa eta sardinaz gain harrapatzen zuten lasuna erabiltzen zuten eskabetxean jartzeko, baina berehala hasi ziren arrantzaleek ekartzen zuten bisigua erabiltzen eta ondorioa benetako iraultza ekonomiko bat izan zen.

Francisco de Arpa ere saiatu zen birmoldaketa hau burutzen, baina XVII. mende hasieran dagoeneko galdua zen Arpatarren garai bateko nagusigoa eta indarra. Egia da eskabetxetegi baten jabe zela, baina badirudi bere kontura eskabetxegiintzan jarduteko gaitasun ekonomikorik ez zuela. Horren lekuko, Domingo de Campos-en arrantza konpainian aritzen zen arrantzale moduan lanean eta kanpoko eskabegileei alokatzen zien bere eskabetxetegia. Adibidez, 1611an Itsasoko Domingo de Tejeriari alokatu zion. Hauek dira Arpatarrei buruz aurkitu ditugun azken aipamenak.

Irudia: "Red barredera" jasotzen

Berduren pastela

Osagaiak:

400 g hojaldre masa
2 Txalota
Azenario bat
Kalabazin bat
Tipula
Piper berde bat

50 g gurina
100 g gazta raiatua
3 arraultza
Basoka bat esne
Intxaur muskatua
Gatza piperbeltza

Prestaketa:

Berdura guztiak txikitu eta zartagi batean frijitu eta bukaeran gurina bota eta nahastu. Ozten utzi. Arraultzak irabiatu eta gazta gehitu. Esnea eta intxaur muskatua gehitu aurreko nahasketari. Labea berotuta eduki 200ºtan. Hojaldre edo hostore masa irina gainean zabaldu eta 25 zentimetroko bi disko moztu. Molde biribila hojaldre plantxarekin forratu eta aurreko nahasketarekin bete, bi kapatan jarrita. Beste hostore diskoarekin estali, arraultza irabiatuarekin pintzelatu eta sardeskarekin izkinak estutu sobratzen den masa kenduz. Labean ordubete eduki eta gehiegi belzten ariko balitz aluminiozko paperaz estali. Bero jarri mahai gainean eta on egin!

MOZORROAREN XARMA

Idazlea:
Asel Luzarraga(Bilbo, 1971)
Argitaletxea: *Erein*
Urtea: *2007*
Orrialdeak: *188*



Asel Luzarragaren hirugarren eleberria aurkeztu nahi dizuet hilabete honetan. Bere bigarren lana izan zen Karonte (2005) eleberriaren korronte berdinetik jo du oraingoan ere; hau da, Asiako kulturak eta teknologia berriek sortzen dioten kezkei buruz jardun du.

Abenturazko nobela bat da, eta Zigor izeneko mutil bat da istorio honetako protagonista. Zigor ez da gazte arrunta, ez ditu bere adineko jende gehientsuenak dituen zaletasunak; Zigorren bizitza bere logelako lau pareten artean eta bere ordenagailuan oinarritzen da, ez da bere logelatik irteten, baina hori aldatu egiten da Tawi, Tailandiako ministroaren emaztea, ezagutzen duenean. Hark Tailandiara gonbidatzen du, eta, itsu-itsuan, herrialde hartarantz abiatzen da. Han, protagonista berak jakin gabe, polizia-operazio batean nahastuta egongo da.

Teknologia berriek, eta batez ere, sare sozialek gaur egun duten garrantzia aipatzen da istorioan, eta hein batean, baita horiek ekar ditzaketen gora-behera eta nahasteak ere. Sare sozial horietan, pertsonok errealitatea itxuraldatzeko dugun tendentzia azpimarratu nahi izan du idazleak; hau da, pantailaren beste aldean dagoenari gure errealitatea ezkutatu ohi diogula adierazten digu. Errealitatea mozorrotzeko joera dagoela dio Luzarragak.

Abenturazko eleberria dela esan du lehen, baina ez da umorerik falta; istorio barreragilea da, kontakizun guztiek parodiaren norabidean jotzen baitute. Lan entretenigarria.

Aitor Irigoien

Globalizazioaren badian

"Norbere pribilegioak printzipioen gainetik jartzen dituenak, laster biak galtzen ditu"

Dwight D. Eisenhower

Duela zenbait urte, udazken arrats batean, Donostiako Kontxako badiatik oinez nindoala, itsasoko uraren gardentasunari so eginez geratu egin nintzen. Hartan, paisaia ederra kolpatzen, eta gardentasun erabatekoa apurtzen zuten hiru objektu arrotz begiztatu nituen urertzean: Coca Cola botila huts bat, McDonaldseko hanburgesa baten plastikozko ontzikia eta Lucky Strike markako zigarro pakete higatu bat. Tristura pixka bat eragiteaz harago, globalizazio gisa ezagutzen dugunaren metafora esanguratsua iruditu zitzaidan egoera.
Izan ere, aipatu globalizazioa nazioarteko merkatuaren inoizko antolaketa aurreratuena gisa aurkezten digute. Zerbait berria, osoa eta hobezina. Haatik, funtsean, soilik ekonomiko-finantzarioa da. Neoliberalismoaren adierazpide gorena. Pentsamendu bakarra (eta ideologien amaiera) aldarrikatzen zutenen eraikuntza bat.

Garapenaren ondorio ekidinezina bezala saltzen zaigu, eta bertan, administrazio publikoek ez dutela esku hartu behar aldarrikatzen. Merkatuko eragiketek erabateko askatasuna behar baitute. Horrela soilik, merkatuak -Adam Smith-ek aipatu esku ikusezinaren bidez- pobreziarekin amaituko eta guztiontzako aberastasuna ekarriko ei du.
Errealitatean, ordea, horren inperfekzioak agerikoak dira: Urtetik urtera handiagoa da herrialde dirudunen (globalizatzaileen) eta txiroen (globalizatuen) arteko diferentzia. Lehenek agindu eta hautatzen dute; bigarrenei onartzea besterik ez zaie geratzen. Lehenak gutxiengoa dira, gero eta gutxiago eta dirudunagoak. Bigarrenen baitan lurrazaleko gehiengo zabala dago, gero eta ugariago eta txiroago. Baliabideen banaketan, desorekak inoiz baino larriagoak dira.
"Merkatua askatasuna da" lemaren doinupean, fluxu ekonomiko-finantzarioak maximora liberalizatu dira, herritarrok inoizko askatasun gutxien dugun garaiotan. Dirua pertsona baino askeagoa izateraino. Eragiketa espekulatiboei alfonbra gorria jartzen zaie, biztanleon artean harresiak eraikitzen dituzten bitartean.

Hala, enpresa erraldoien boterea etengabe areagotuz doa, gobernu lokalen kaltetan. Erabakitze ahalmena gobernu demokratikoetatik (interes publikoa) korporazio pribatuetara igaro da. Enpresa horietako edozeinen urteko mozkinak hainbat gobernuren aurrekontu osoak baino handiagoak dira. Ondorioz, guztioi eragiten diguten gaietan multinazional pribatuek hartzen dituzte erabakiak, euren onura eta interesen mesedetan. Egun, horiek dira gobernuen politikak zuzentzen dituztenak, eta ez alderantziz. Arlo publikoa kontrolatzearekin batera, merkatuko eskaintza guztia ere bereganatzen dute, beraien baldintzak inposatuz, lehiakide txiki lokalak zanpatuz. Interes pribatua kolektiboari nagusitzen zaion testuinguruan, nola bermatzen dira gehiengoaren interesak?

Era berean, globalizazio ekonomiko honek badu kutsu kultural bat ere, akulturazioa sustatzen duen heinean. Gure aisia, ohiturak, jokamoldeak, zaletasunak, estiloak… gero eta uniformeagoak dira. Munduko biztanleon bizitza homogeneizatu egin dela dirudi, eredu zehatzak mundu osora hedatu balira bezala; eremu globalak lokala xurgatu izan balu bezala.
Horrenbestez, gure arteko aniztasun kulturala ezabatzen doan neurrian, desberdintasun ekonomikoak eta sozialak etengabe areagotu dira. Urtetik urtera, hizkuntza gehiago desagertzen diren bitartean, gorantz doa pobrezia zein gosetea pairatzen dutenen zenbatekoa. Babestu beharreko desberdintasunak gutxitzen doaz; gainditu beharrekoak, aldiz, areagotzen.

Mundu mailako arazoak konpontze aldera, logikoa deritzot globalizazio motaren bat komenigarria dela adieraztea. Baina inolaz ere ez egungoaren terminoetan. Finantzez gain, ongizatea, justizia, osasuna, hezkuntza, elkartasuna… benetan ezinbestekoa zaigun dena guztien esku jarriko duena baizik. Guztion beharrak asebetetzea xedetzat lukeena. Adierazle ekonomikoez gain, irizpide sozialak, etikoak, kulturalak, ingurumenekoak ere kontuan izango lituzkeena. Pertsona epe laburreko mozkinen gainetik kokatuko lukeena. Elkarrekin lan egitea bultzatuko duena, gainontzekoak etsai gisa ikusi ordez. Kolore anitzeko eremu lokalak errespetatuko lituzkeena.

Kontxako badian, hiru objektu haiei begira, globalizazioa kanpotik zetorren zerbait iruditu zitzaidan. Duela gutxi, ordea, solasaldian geundela, lagun batek globalizazioa (edota kapitalismoa) ez dela kanpoko zerbait, norberak bere barnean daraman zerbait baizik adierazi zuen. Adostasuna agertu nion. Gauzak aldatzeko lehenik norberak aldatu behar duela, eta denok egin dezakegula zerbait pentsatzen dudalako.

Norbere pribilegioak alboratu eta barneko printzipioen arabera jokatzera ausartzeko garaia da. Zaila izan arren, aukerak eta adibideak egon badaude.

---

*Gai honen inguruan, Jose Luis Sampedroren "El mercado y la globalización" liburuaren irakurketa zinez gomendatzen dut.

Herstura ekonomikoan oinarriturik

elan euskadi
ONGD - GGKE

Josep Fontanaren esanetan, Espainiako Gobernu berriaren argazkiak beldurra ematen du. Historialari kataluniarraren arabera, gobernu honek ahaztu egin du nola gainditu zen hainbat herrialdetan, Eskandinavian adibidez, 30eko hamarkadako krisia.

Garai hartan irtenbidea ez zen herstura ekonomikoan oinarritu, alderantziz, hain zuzen ere: estatuek tinko hartu zuten parte ekonomian, langileriaren oinazea arinduz eta zorretan sartuz.Krisitik irten ondoren, estatuek zor horiek zuzendu zituzten. Hala ere, Espainiako Gobernu honek herstura ekonomikoa hartu du argudio eta eginbehar bakartzat. Adituen arabera (batzuk aintzinako neoliberal peto-petoak), ekonomia batek ez badu inbertitzeko gaitasunik gastu publikoaren murrizketak oso kaltegarriak izan daitezke eta ekonomiaren putzuan sakondu besterik ez du egiten.

Greziako ospitaleetan, adibidez, oinarrizko medikamentu eta txertoak oso eskasak dira; hori dela eta gaindituta dauden hainbat gaixotasun, poliomielitisa eta difteria adibidez, berriro ere sor daitezke. Beste alde batetik, azken urte hauetan Estatu Batuetako gizartean geratutakoak herstura ekonomikoaren aukerak norantz garamatzan adierazten digu.Horrela, gizarte ezberdintasunak aparteko igoera izan du. Datuen arabera, gaur egun Estatu Batuetako gizarte ezberdintasunaren tasa Pakistan, Etiopia edo Kazajistango tasa baino handiagoa da. Datu hau ez du Kubako alderdi komunistak atera, CIA-ko Factbooek baizik (haien analisi liburua da).

Gainera, Estatu Batuetako 500 enpresa handienetako zuzendariei ordaindutakoak %36,5 igo ziren 2010ean. Urte berean, 1.600.000 estatubatuar ume etxerik gabe geratu ziren; 2007ko datuak hartzen baditugu, horrek %38ko igoera adierazten du. Zalantzarik gabe, Josep Fontanak arrazoi du gobernuak beldurra ematen duela esaten duenean.

Ze espero daiteke bada, Luis de Guindos ekonomia-ministroa Lehman Brothers-eko buruzagia izan zela jakinik?

] Otsaileko agenda

] Solasaldia

[Otsailaren 1a, asteazkena]
BILADI HADI. Hamaika begirada Palestinari, Euskal Herritik.
Liburuaren aurkezpena
Ordua: 19:30etan.
Lekua: Harralde taberna.
Antolatzailea: Harritan Blai.

] Santa eskea

[Otsailaren 4a, larunbata]
AUZOZ AUZO SANTA ESKEAN
Getariatik San Prudentzio, Askizu eta Mia-n barrena Trikitilari, Bertsolari eta Kantariekin.
- Askizun HAMAIKETAKOA.
- Mia-n BAZKARIA.
- Arratsaldean, herriko plazan TXOKOLATEA.
- Ondoren, KANTUPOTEOA herriko kaleetan.
*** Aurrez izena eman behar da jatorduak antolatzeko.
Ordua: 08:30ean
Lekua: Getariako plazan
Izen-ematea: Harralde eta Taxko tabernetan (5 €), otsailaren 1a baino lehen
Antolatzailea: Getariako Bertso Eskola

] Eski irteera

[Otsailak 11 eta 12]
Luz Ardiden-era
Eski irteera.
Izen-ematea: otsailaren 1etik 7ra.

] Argi emanaldiak

[Otsailaren 13a, astelehena]
"LUCIO", Argia dokumentala.
Ordua: 19:30etan
Lekua: Gaztetxea
Antolatzailea: GGA (Getariako Gazte Asanblada)

] Hitzaldia

[Otsailaren 15a, asteazkena]
HITZALDIA / AURKEZPENA. "Independencia, de reivindicación histórica a necesidad económica"
Hizlaria eta liburuaren egilea: Nekane Jurado
Ordua: 19:30ean.
Lekua: Harralden.
Antolatzailea: Harritan Blai.

] Film proiekzioa

[Otsailaren 16a, osteguna]
"José Martí: **EL OJO DEL CANARIO"** (2010), kubako filmaren proiekzioa.
Zinegilea: Fernando Pérez
Ordua: 19:00ean.
Lekua: Alondegia.
Antolatzailea: ELAN-EUSKADI G.K.E.

] Odol ematea

[Otsailaren 16a, osteguna]
Ordua: 19:00etatik 21:00etara
Lekua: Anbulategian.
Antolatzailea: Gure Txeru elkartea.

] Inauteriak

[Otsailaren 17a, ostirala]
INAUTERI FESTA HERRI ESKOLAN
Ordua: 14:30etan Mozorro desfilea, jolasak, festa, txokolatada

[Otsailak 18 eta 19]
INAUTERI FESTA GETARIAN: mozorro bazkari herrikoia, musika, lehiaketak, mozorroen desfileak, sariak, Musika Bandaren inauterietako kontzertua.
*** ERAKUSKETA: Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak, udaletxeko sarreran ikusgai egongo dira aste osoan, otsailaren 13tik 19ra.

] Batzarra

[Otsailaren 18a, larunbata]
Arrantzale Zaharren Elkartean,
BATZAR NAGUSIA ospatuko da.

] Pilota

[Otsailaren 19a, igandea]
IX. GAZTE ETA HELDUEN PILOTA TXAPELKETAko FINALAK.
[Otsailaren 26a, igandea]
Herriko haurren XXXIV. ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETAren FINALA.
Ordua: 11:30etan
Lekua: Frontoia

] Zinea

[Otsailak 5, 12, 19 eta 26]
Ordua: 17:30etan
Lekua: Gure Txeru aretoan
Antolatzailea: Guraso Elkartea

] Lehiaketak

KARTEL LEHIAKETA:
Lanak aurkezteko azken eguna: otsailak 8
*** ikusi oinarriak
[Otsailak 4, 11, 18 eta 25]
XAKE LEHIAKETA

] Irteera

[Otsailaren 25a osteguna]
SAGARDOTEGIRA IRTEERA
Antolatzailea:
GGA (Getariako Gazte Asanblada)

] Ikastaroak

[Otsailak 4, 11, 18 eta 25]

IDAZKETA TAILERRA
KATUKALE irakurle-taldearen saioa.
Norentzat: idazketaren gozamena bizi nahi duenarentzat (gehienez, 12 laguneko taldea).
Ordutegia: 10:30-13:00
Nork: Uxue Alberdik.
Prezioa: 25 €
Antolatzailea: Getariako Udala, Euskara saila.

ANTZERKI CLOWN TAILERRA
Noiz: 2012ko urtarrila eta ekaina bitartean.
Animatzailea: Ramon Albistur / Uhartean.
Egutegi eta ordutegia:
24 orduko formazio zikloa, 6 larunbatetako goizetan.
Lehen topaketa: 2012/01/28
Prezioa: 120 € ziklo osorako (20€ hileko kuota).
Non: Gure Txeru elkarteko lokalean.
Informazioa eta izena emateko: Tel. 948 63 11 62, mugabeclown@uhartean.com, www.uhartean.com
Antolatzailea: Uhartean Mugabeclown.

TXOTXONGILO TAILERRA, "EGIN ETA BIZI"
Txotxongilo munduari gerturatzeko aukera. Nola egin eta bizia eman.
Hasiera: Urtarrilak 23
Noiz: astelehenero 19:30etik 21:00etara.
Non: Alondegian (Gaglo Gaztelekua).
Iraupena: bi hilabete.
Izen-ematea: Harralde tabernan.
Antolatzailea: Harritan Blai.

] Kz Gunea

Otsaileko ordutegia: 17:00etatik 20:00etara.
Tutorea egongo da, otsailak 3, 10, 17 eta 24 (09:00-13:00).
Lekua: Kultur Etxeko lehen solairua.

] Gaglo Gatelekua

***Galdetu bertan anotolatutako ekintzengaitik

Ordutegia: ostirala, 17:00-20:00 // larunbata, 16:30-19:45 // igandea, 16:30-20:00

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: otsailaren 6tik 12ra (biak barne)

50eko hamarkadako Eskola nazionala

Batek baino gehiagok gogoratuko du Frankismo garaiko eskola, Berdura plazaren gainean zegoena. Zutik, gure iturrien arabera identifikatu ditugunen artean, hauek daude, besteak beste: Joakin Aranguren, Joxe Mari Iturbe, Jexux Mari Bordagarai, Jexux Mari Aranguren, Juan Joxe Azkue, Rafael de Diego, Faustino Goikoetxea, Alex Arrillaga, D. Ramon eta Joxe Alberdi. Lehenengo ilaran, hauek ikus daitezke: Julian Alkorta, Klaudio Iribar, Jexux Mari Lasa, Juanito Alberdi, Pako Aizpuru, Patxi Andreano, Balentin Artano eta Frantxixko Mitxelena. Bigarren ilaran eserita, berriz, hauek agertzen dira: Joxe Iñaxio Alkorta, Antonio Iturbe, Juanito Aginaga, Jabier Mantzizidor, Pedro Joxe Larrañaga, Joxe Antonio Larrañaga, Mariano Larrazabal eta Florentino Saizar. Hirugarrenean: Alejandro Egurbide, Jexux Mari Larrazabal, Antero Silbeti, Benito Aranguren, Jexux Mari Alkorta, Juan Joxe Larrañaga, Luis Mari Manterola, Joxe Luis Azkue eta Endrike Manterola. Laugarren ilaran: Manuel Inaxio Gorostiaga, Ixidro Berasaluze, Migel Anjel Albisu, Joxe Agustin Larrañaga, Joxe Mari Ezenarro, Eugenio Alberdi, Joakin Burgaña eta Joxe Luis Ezenarro. Bosgarren ilaran: Txomin Kerejeta, Pedro Uzin, Agustin Etxegoien, Enrike San Martin, Joxe Mari Silbeti, Joxe Mari Aranguren eta Joxe Domingo Manterola. Eta azkenik, atze-atzean: Eusebio Urresti eta Leterio Iribar, besteak beste.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu,deitu 943-00 05 48 telefonora edo *artzape@topagunea.com* helbidera bidali.

zorion agurrak

Josune Urresti
Otsailak 12
Zorionak Artzapeko lan taldearen partetk.
Afai merienda zure kontu!

Lourdes Etxeberria
Otsailak 13
Zorionak Xordo!!
Asko maite zaitugu.
Zure familia.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 653
Botika 943 140 441
Herri Eskola.....943 140 729
SOSdeiak 112
Kofradia 943 140 200

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

artzape

Bazkide-kuota: urtean 20 euro

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....P.K.....Telefonoa:.....

Kontu zenbakia:.....

Sukurtsala:.....

Txeruko poztontzian sartu horri hau beteta zure datuekin edo bidali datuak *artzape@topagunea.com-era.*

Getariatik kanpo bizi bazara eta aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, EGIN BAZKIDE eta bilaliko dizugu! 22€ (2 € korreos gastuak)